



Astoa ikusi nuen

1. Urbieta

Hitzak: J. Ormazabal

Mold: Aitor Amezaga

Allegro

F C7 F C F

4

mf

4 1 5
2

F C7 F B \flat C F

5

4 5

9 C F C7 F

p

5

13 F C Dm F B \flat C F

mf

4 4 5 7

Astoa ikusi nuen betaurrekoekin
buruan txapela eta gabardinarekin.
Ile luzea eta bigotearekin
hizketan egon nintzen atzo berarekin.

4. Astoa etorri zen hurrengo goizean
jantzi polit bat zeukan jantzirik soinean.
Maixuak esan zion eseri lurrean
astotxo ez baitzera kabitzen mahaiean.

2. Astoak esan zidan triste zegoela
oso zatarra zela bere ikastola
berak zure gelara etorri nahi zuela
gure artean ondo konponduko zela.

5. Hondartzako eguna iritsi zenean
astoa portero eta denak futbolean.
Baloï batek jo zuen astoa buruan
lurrera erori zen hiltzeko zorian.

3. Baietz esan nion nik lasai etortzeko
arkatza eta bloka dendan erosteko
astoa izan arren trankil egoteko
asko ikasi eta txintxo portatzeko.

6. Azkar deitu zioten sendagileari
baita Donostiako anbulantziari.
Orain klinikan dagon asto gaixoari
esan nahi genioke "lehen bait lehen etorri".